



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko martxoaren 2a

39. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Pentsioetarako osagarri baterako neurriei eta osagarri hori bermatuko duen pentsio, babes eta gizarte-segurantzako sistema propio bat sortzeari buruzkoa. Batzorde sustatzaile batek aurkeztua, zeinaren ordezkaria Miguel Ángel Sangalo Grijalbo jauna baita (2. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, sinbolo frankistak direla-eta Gobernuak egin duen behin-behineko erroldari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Karlismoaren Museoko Batzorde Aholku-emaileari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nasuvinsaren industriarako lurzoruari edo etorkizunean industria-erabilera emateko lurzoruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Lankidetzeta Protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Lekunberrin ospaturiko “Día del Navarro ausente”-ri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-azpiegiturak direla-eta 2016rako eta 2017rako darabiltzan jarduketa-asmoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Renfek Tafallako tren geltokian zerbitzu ematen duten langileak kentzeko erabakiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Gazte Bermeko Plan Nazionala ezartzeko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Pentsioetarako osagarri baterako neurriei eta osagarri hori bermatuko duen pentsio, babes eta gizarte-segurantzako sistema propio bat sortzeari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen duen legegintzako herri-ekimena erabiliz eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, Pentsioetarako osagarri baterako neurriei eta osagarri hori bermatuko duen pentsio, babes eta gizarte-segurantzako sistema propio bat sortzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan batzorde sustatzaile batek, zeinaren ordezkaria Miguel Ángel Sangalo Grijalbo jauna baita. Mahaiak tramitera onartu zuen, 2016ko otsailaren 8an harturiko erabaki baten bidez.

Hauteskunde-batzorde Zentraleko lehendakariak Parlamentu honi igorri dio Estatistika Institutu Nazionaleko Hauteskunde Erroldaren Bulegoaren Zuzendariorde Nagusiak egindako ziurtagiria, non egiaztatzen baita aipaturiko legegintzako herri-ekimena izenpetu dutenen sinadura baliodunen kopuruak gainditzen duela aurkeztu zen egunean autonomia erkidegoan indarrean zen erroldako hautesleek ehuneko 1, Legegintzako herri-ekimenari buruzko martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legeko 3.1 artikuluari uztailaren 5eko 14/2012 Foru Legean emandako testuak behar-tzen duen moduan.

Hori guztia kontuan izanik, aipatu Foru Lege proposamena izapidetu behar da 3/1985 Foru Legearen 3. eta 13. artikuluetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 126.1d), 148. eta 149. artikuluetan aurreikusitako eran. Horretarako, legegintza-ekimenaren Sustapen Batzordeak kide bat izendatu beharko du, proposamena Legebiltzarraren Osoko Bilkuran defenda dezan, aintzat hartzeko eztabaidan.

Hori horrela, aplikatzekoa den araudiarekin bat, ERABAKI DA:

1. Agintzea argitara dadin Foru Lege proposamena, Pentsioetarako osagarri baterako neurriei eta osagarri hori bermatuko duen pentsio, babes eta gizarte-segurantzako sistema propio bat sortzeari buruzkoa.

2. Legegintzako herri-ekimenaren Sustapen Batzordeari eskatzea hauta dezan, 2017ko martxoaren 13a baino lehen, bere kide bat, Foru Lege proposamena defendatzeko Legebiltzarraren Osoko Bilkuraren aurrean, proposamena aintzat hartzeko eztabaidan.

3. Erabaki hau igortzea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruari eta aipatu legegintzako herri-ekimenaren Sustapen Batzordearen ordezkari den Miguel Ángel Sangalo Grijalbo jaunari.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an.

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Lege proposamena, Pentsioetarako osagarri baterako neurriei eta osagarri hori bermatuko duen pentsio, babes eta gizarte-segurantzako sistema propio bat sortzeari buruzkoa**

**ZIOEN AZALPENEA**

*Erosahalmenaren galerari eta diru-sarrera duinak bermatze aldera pentsioak osatzeko beharrari buruz*

Gizarte Segurantzaren sistema orokorra 1/1994 Errege Dekretuaren bidez arautu zenetik, zeinak zuzenean babesten baitu Pentsioen eta Babes Sozialerako Sistema, zenbait erreforma egin dira, eragiten dietenak pentsioen diru-kopuruei nahiz osasun zerbitzu publikoarekin, farmazia-sistemarekin eta mendekotasunaren arretare-

kin loturiko sistemari berari. Horrek ondorio larriak eta atzerantzkoak dakartza pentsiodunentzat edota diru-sarrerara gutxi dituztenentzat.

Pentsioak eskuratzeko modua larriki murriztu da 2011ko eta 2013ko erreformen ondorioz; azkenean, 25 urteko kotizazioak eskatuko dira gutxieneko erretiro-pentsioa jaso ahal izateko. Formula horren bidez, milaka kotizatzaile pentsio publiko baterako eskubiderik gabe geratuko dira.

Bestalde, pertsona kopuru esanguratsu bat pentsio publiko bat eskuratzetik bazterturik geratzen da. Emakumeen kasuan, bazterketa hori ordaindutako lana izateko eskubidearekiko diskriminazio eta bazterkeria historikoaren ondorioz dator; izan ere, ugaltze- eta zainketa-lanetara mugaturik, pentsioen bat jasotzeko adinera iristean ez dute halakorik jasotzeko eskubiderik, edota, oro har, alargun pentsio baxuak jasotzen dituzte. Era berean, bestelakotasun funtzionala duten pertsona gehienek ere ez dute kotizazioko pentsiorik jasotzen, eta babesgabetasun ekonomiko eta sozial handian daude asko.

Halaber, 2011z geroztik pentsio-izozteak aplikatzen ari dira; partzialki, kasu batzuetan, eta erabat beste batzuetan, eta horren ondorioz pentsiodunen erosahalten erreala murrizten ari da.

Bestalde, azken pentsio-erreformek horien hazkunde ekonomikoa arautzen dute, printzipio gisa ezarrita etorkizunean pentsio guztiak urritzen joanen direla, dela urteko % 0,25eko hazkunde egonkorra izanen dutelako, KPIa kontuan izan gabe –ez zaie pentsioei aplikatuko–, dela “iraunkortasun faktore” delakoa aplikatzeagatik, zeinak ezartzen baitu eskubidezkoak diren pentsioen balio absolutuaren galera portzentual eta urterik urtekoa, 2019ko % 0,72tik hasita 2030eko –ordu amaituko baita bere indarraldia– % 20ra arte.

Nafarroako 130.033 pentsiodunen batez besteko pentsioa 1020,45 eurokoa da, baina pentsiodun horien erdiak, gehienak emakumeak eta bestelakotasun funtzionala duten pertsonak, hilean 600 euro baino gutxiago jasotzen du. Urrun gaude Europak alor honetan emandako gomendioetatik; izan ere, horien arabera, hilean 1.080 euroko gutxieneko diru-sarrerak behar dira oinarritzko mantentze-beharrizanei aurre egiteko: elikadura-gastuak, arropa, etxebizitza, botikak, energia eta abar.

Zenbateko horiek alderatu beharrekoak dira Europar Batasuneko erreferentziazko zenbatekoekin. European, pentsioen batez besteko gastua Barne Produktu Gordinaren % 14,4koa da; aldiz, gure eremuan, Espainiako Estatuan alegia, % 9,5koa da. Ikusten denez, aldea zabala da, pen-

tsioen murrizketa oro saihesteko adinakoa. Era berean, European babes sozialean egiten den batez besteko per capita gastua 6.349 eurokoa da, eta Espainiako Estatukoa, berriz, 5.163 eurokoa.

Zenbateko horiek eskuetan, pentsio publikoen eskaintza alternatibo bakarra da pentsio horiek pentsio pribatuekin osatzea. Baina aukera hori bateraezina da; izan ere, pentsio publikoen bidezko diru-sarreraren aurreikuspenarekin ezinezkoa da aurrezki nahikorik izatea sistema pribatu paralelo edo pentsio-funts bat mantentzeko.

Ikuspegi horretatik abiatuta eta aurreikuspen errealistenaren arabera, pentsio publikoen erosahaltenaren galera % 14,5etik % 28ra bitartekoa izanen da 2011tik 2019ra, KPIaren bilakaera nolakoa den.

*Babes sozialerako eta pentsioen sistema propio bat sortzeko beharra, pentsiodunek diru-sarrera duinak murrizketarik gabe jasotzeko duten eskubidea defendatzeko.*

Nafarroan, pentsiodunon kolektiboak herritarren ehuneko 25 egiten dugu, baina hirurogei urte-tik gorako pertsonok ez dugu gaitasunik, erabakitzeko zein den gure pentsioak kudeatzeko sistema egokiena.

Bi afera horiei buruzko oinarritzko bi arauak Espainiako Estatuko Gobernuak lege-dekretu bidez emanak dira, eta, sistema mantentzeko formula bakar gisa, Gobernuak heldu egiten zaio kuxta bakarraren sistemari, Gizarte Segurantzaren diru-sarrerara eta gastuen kontrolari eta langileen eta enpresaburuen kuoten sistemari. Halaber, ez dago gardentasunik baliabideen kudeaketari dagokionez (pentsioetara bideratutako Gizarte Segurantzaren erreserbek 40.000 milioi euro egin dute behera bi urtean, baina ez dakigu oso ondo zertarako erabili den diru hori).

Pentsioekin, kuoten hazkundearen zenbatekoarekin edota pentsioen igoerarekin zerikusia duen erreklamazio edo izapide orok bide bakarra du, eta bide hori gure ehundura sozial, ekonomiko eta sindikalaren errealitate-tetik at dago. Horren arrazoia agerikoa da: guztia Madrilgo Gobernuak edo Espainiako Estatuko Parlamentuak erabakitzen du, eta organo horietako gehiengoek ez dute zerikusirik Nafarroako errealitatearekin; urrunegi, mantsoegi, gardentasunik gabe eta hemengo ezaugarri eta hobetzeko aukerei erantzunik eman gabe.

Nafarroako Foru Komunitateak babes- eta gizarte segurantzaren integraleko sistema propio bat izan ahal eta izan behar du. Sistema horren egin-kizuna litzateke kuotak biltzea, baliabide ekonomikoak eta tresna-baliabideak kudeatzea, pentsioak

kudeatzea eta gizarte babeserako sistema sostengatzea. Erakundeek eta eragile sozial eta sindikalek, horrenbestez, araugintza-ahalmen osoa izan behar dute pentsioen sistema erabakitzeko eta pentsio publikoak bermatzeko.

#### *Konklusioak*

Espainiako Estatuko pentsio sistemak ez ditu pentsiodunen eskubideak bermatzen, eta pentsio duinak jasotzea galarazten du entitate pribatuen pentsio planen sustapen eta garapeneko egoera batean. Egungo legeriak eta bere joerak murriztu egiten dute etorkizun hurbilean pentsio bat eskuratzeko ahalmena, pentsioen hazkundea mugatzen dute eta, epe laburrean, are gehiago pobretzeko bidetik eramaten gaituzte.

Egoera hobetzeko eta etorkizunerako bermea izateko, beharrezkoa da pentsioen eta babes sozialerako sistema propio bat izatea. Sistema hori lehenbailehen hasi behar da garatzen, autonomia-rekin eta irizpide berekiekin egiturari, xedeari eta beharrezkoak diren baliabideei dagokienez, Foru Komunitateko Gobernu Kontseiluak berak dinamizatuta eta ordezkariak duten indar politiko, sozial eta sindikalen parte-hartzearekin.

#### **1. artikulua.**

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak, aurrekontu publikoen bitartez, osagarri ekonomiko bat bermatuko die pentsiodun guztiei, zeina izanen baita jasotzen duten pentsioaren eta hileko

1.080 euroren arteko aldea bezainbestekoa. Hain zuzen, 1080 euroko kopuru hori da gaur egun, gure ustez, gutxieneko diru-sarrerara duina, pobrezia-aren atalasea zehazten duten Europako irizpideekin bat.

Osagarri horren urteroko gehikuntza izanen da Kontsumoko Prezioen Indizearen hazkundearen neurri berekoa.

Pentsioen osagarrien sistema horretan sartuko dira Nafarroako Foru Komunitatean edonolako prestazio bat jadanik jasotzen duten pertsonak.

#### **2. artikulua**

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak erakunde publiko bat sortuko du pentsio-, babes- eta gizarte segurantzako sistema bat antolatzeko. Sistema hori integrala izanen da eta araugintza-ahalmen osoa izanen du, eta diru-sarrerak nahiz gastuak ordenatu eta kudeatuko ditu pentsioei eta herritarrentzako babes sozialari dagokienez.

Horretarako, foru lege hau onesten denetik hiru hilabete igaro baino lehenago, lantalde bat eratuko da Nafarroako Parlamentuan, zeinean ordezkariak egonen baitira ordezkariak duten indar politiko, sozial eta sindikal guztiak. Lantalde horrek prestatuko ditu pentsioen eta babes sozialerako sistema propioaren administrazio, antolamendu, diru-bilketak eta kudeaketarako erakundea sortzeari buruzko arauak eta erritmoak.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, sinbolo frankistak direla-eta Gobernuak egin duen behin-behineko erroldari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, sinbolo frankistak direla-eta Gobernuak egin duen behin-behineko erroldari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 12ko 148. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte

López jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Sinbolo frankistak direla-eta Gobernuak egin duen behin-behineko erroldari buruz (9-16/PES-00412). Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak eskatutako txostenaren kopia igortzen dio.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 3an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

## **Galdera, Karlismoaren Museoko Batzorde Aholku-emaileari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Karlismoaren Museoko Batzorde Aholku-emaileari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 12ko 148. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Karlismoaren Museoari buruz (9-16/PES-00413). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Lehenengo galdera hauxe da: "Bateragarriak al dira elkarte horren parte-hartzea eta Nafarroan 1936an izandako errepresioari buruz egindako adierazpen publikoak eta 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua

eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legea?"  
Hona erantzuna:

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremaneta-ko Departamentua ez da eskuduna Karlismoaren Museoa dela-eta. Horregatik, kontsulta egin diogu Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari, eta hauxe da aipatutako museoaren funtzionamenduari buruz igorri digun informazioa.

1997an, Nafarroako Demokratien Elkarguneak mozio bat aurkeztu zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatu baitzuen karlismoarekin lotutako balio historiko materiala berreskuratzeko (1997ko apirilaren 21eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala). Mozioa aho batez onetsi zen, eta haren ondorioz, Nafarroako gobernua premiatu zen, Parlamentuaren ebazpen baten bitartez, Museoa sor zezan. Lizarra hirian kokatuko zela erabakita, Nafarroako Gobernuaren 1999ko abenduaren 20ko erabakiaz sortu zen.

Karlismoaren Museoa —1999ko Foru Aginduaren bidez sortu eta 2010ean inauguratu zen— helburu du karlismoak Nafarroan eta Espainian XIX. eta XX. mendeetan izan duen historia jaso eta azterketarako eta gogoetarako gako batzuk eskaintzea, erakusketa-eskaintza baten bitartez eta jarduera dinamiko eta erakargarrien bitartez. Helburu hori lortzen laguntzeko, 2006an komite zientifiko bat sortu zen, 2011n berritu zen, eta karlismoari buruzko sentsibilitate desberdinei tokia emateko, 2010ean aholku-kontseilu bat sortu zen, Kultura eta Turismoa-Vianako Printzea Erakunde-ko kontseilariaren apirilaren 13ko 39/2010 Foru Aginduaren bitartez. Karlismoaren ondarearekin lotutako harremanak eta albisteak eman zitzaizketen pertsonak ziren.

Karlismoaren Museoko egungo aholku-komitea azaroaren 11ko 81/2016 Foru Aginduaren bitartez eratu zen, eta arau horretan haren eginkizunak, haren kideak eta izendapenaren indarraldia zehaztu ziren. Komite hori sortu da Karlismoaren Historiari lotutako adituen eta erakundeen presentzia batean biltzeko, Vianako Printzea Erakunde-Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin batera modu eraginkorrago batez lan egiteko. Hori dela eta, hartan bildu dira garai batean komite zientifikoari eta aholku-kontseiluari emandako eginkizunak.

Egungo aholku-komiteari emandako eginkizunak, foru aginduaren 2. puntuan garatuta datozenak, honako hauek dira:

– Karlismoaren Museoa hedatzeko eta herritar guztiei ezagutarazteko ekintzak proposatzea.

– Karlismoaren Museoko museo eta dokumentu funtsak handitzea, haiek dituzten erakundeek

eta partikularrek eman ditzatela bultzatuz, ahal dela dohaintza bidez.

– Karlismoaren historia ezagutzeko aukera ematen duten kultura jarduerak bultzatzea, kulturen arloko entitateek, pertsonak eta erakundeek sustatuta.

– Interesa duten erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzak sustatzea, baita partikularrekin ere, karlismoaren historia herritarrei ezagutarazteko jarduerak egiteko.

– Karlismoari buruzko ikerkuntza eta argitalpenen ildoak sustatzea.

– Museoko arduradunei jakinaraztea haren xedeak betetzeko interesekoak izan daitezkeen jarduera eta albiste oro.

Haiek eraginkortasunez garatu ahal izateko, erabaki da Karlismoaren mugimendu sozial eta politikoarekin hertsiki lotutako pertsonen presentzia izatea, hari osotasunez eta dibertsitatea aintzat hartuta erreparatuz.

Aholku-komitea, Foru Aginduaren 3. puntuan zehazten den bezala, "kontsulta izaerakoa" da, eta ez dago integratuta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren egitura organikoak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa Nafarroako kultur ondarea babestearen arloan eskuduna denez, Konstituzioaren 46. artikulua, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-zeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikulua eta Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 4. artikulua arabera, eta Karlismoaren kultur ondarearen zatirik garrantzitsuena betiko barreiatzeko eta galtzeko arriskuan dagoenez, erabaki da aholku-komite askotarikoa eta eraginkorra eratzea, haren bidez Karlismoaren Museoa aukera izan dezan bereganatuta dituen kontserbazio-, dokumentazio- eta komunikazio-eginkizunak betetzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kultur azpiegitura bat denez gero.

Esleitutako eginkizunak egoki betetzeko, egokitza jo zen aholku-komite horretan karlismoarekin lotutako ahal den pertsona eta entitate gehien biltzea, ikuspuntu akademiko, zientifiko edo ideologikotik, zeren eta eragile horiek baitira aipatutako helburuak eraginkortasun handiagoz lortzeko lagundu dezaketenak, bereziki karlismoarekin lotutako materialak zuzenean eskuratzeari dagokionez.

Bestetik, Nuin jaunak ongi dakien bezala, gobernu honek konpromiso irmoa du 1936ko kolpe

militarraren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legea betetzeari eta garatzeari dagokienez. Berriki, Nuin jaunak berak aurkeztutako 9-16/POR-00362 galderari emandako erantzunean, aukera izan nuen, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria naizen aldetik, lege horren betetze-mailari buruz informatzeko. Datu horiek ez ditut oraingoan errepikatuko, interesdu-nak ederki ezagutzen baititu.

Hurrengo galderak hauexek dira: “Ezkerreko jendearen eta taldeen aurka Nafarroan izandako errepresio ankerrean karlismoak izandako parte-hartzea nola agerraraziko da museo horretan eta kontseilu aholku-emaile horretan? eta “Testuliburuak azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legean ezarritako xede eta helburuetara egokitzeko prozesuan,

Gobernuak ba al du asmorik museo horretan karlismoari buruz ematen diren edukiak eta irudia ere berrikusteko?” Horri buruz esan behar dizut ezen, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua jada Hezkuntza Departamentuarekin lan egiten ari dela testuliburuetan 1936ko kolpe militarra haietan tratatzen den modua berrikusteko, eta, era berean, departamentu hau Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuarekin lan egiten ari dela Museoa karlismoari buruz ematen den irudia berrikusteko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 3an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

## **Galdera, Nasuvinsaren industriarako lurzoruari edo etorkizunean industria-erabilera emateko lurzoruari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nasuvinsaren industriarako lurzoruari edo etorkizunean industria-erabilera emateko lurzoruari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 12ko 148. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak galdera egin du NASUVINSaren industriarako lurzoruari edo etorkizunean industria-erabilera emateko lurzoruari buruz (9-16/PES-00414). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

1. Salmentarako baliagarri dagoen industria-lurzorua azalera (jada urbanizatua), urbanizatu gabeko industria-lurzoru urbanizagarria edo industria-lurzoru gisa sustatzeko erreserban dagoen lurzorua urbanizaezina, Nasuvinsa enpresaren titulatasuneko, eta horien kokalekua, herriz herri.

Honako taula honetan laburbiltzen dira baliagarrri dauden azalera, aipatutako tipologien arabera eta herriz herri:

<i>Udalerrria</i>	<i>Salgai dauden lurzatiak</i>	<i>Urbanizatu gabeko lurzoru industrialak</i>	<i>Sailkatu gabeko lurzorua</i>
Alsatsu	7.500		
Agoitz	17.955		
Arazuri	29.730		
Arguedas	8.763		
Artaxoa	17.874		
Burgi	35.423		
Cabanillas	194.057		
Cadreita	14.478		
Cortes	160.454		
Faltzes	24.412		
Galar	81.473		
Irurtzun		145.000	
Izaba	715		
Legarda			369.630
Lekaroz	7.875		
Lodosa		399.790	
Los Arcos	198.053		
Mélida	6.972		
Mendabia	12.620		
Milagro	5.287		
Muruzabal			64.212
Noain			1.308.643
Obanos			99.016
Orkoien	9.063		
Tutera	409.963		
Urdiain			242.234
Uterga			117.034
<b>Guztira</b>	<b>1.242.667</b>	<b>544.790</b>	<b>2.200.769</b>

2. Aipatutako lurzoru horietako bakoitzaren unitate-balioa, sozietatearen onetsitako azken kontuen balantzean, honako egoera-mota hauen arabera:

- Lurzoru urbanizaezin gisa sailkatua
- Urbanizatu gabeko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatua

- Eraiki gabeko lurzoru urbanizagarria
- Eraikitako lurzoru urbanizagarria

Nasuvinsaren azken balantzean jaso den balioa, galderan aipatutako tipologietako bakoitzari buruzkoa, ondoren aipatzen duguna da:



Tipologia	Balantzean duen balioa
Urbanizatu ezineko lurra; Lur urbanizaezina	4.984.641,13 €
Urbanizatu gabeko lurzorua	7.030.260,50 €
Eraiki gabeko lurzoru urbanizagarria	35.641.164,22 €
Eraikitako lurzoru urbanizagarria	23.054.988,70 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>70.711.054,55 €</b>

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 11n

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

## **Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Lankidetzaren Protokoloari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Lankidetzaren Protokoloari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 12ko 148. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin lotutako zenbait gai buruz (9-16/PES-00415). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

1. Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Elkarbizitzarako Idazkaritza Nagusiarekin izandako bilertan, ez dugu aktarik egin, baina prentsa-ohar banarekin informatu dugu aztertutako gai buruz:

– 2016ko maiatzaren 20an Iruñean egindako bilera. Bertaratutakoak: Nafarroako Gobernuaren

izenean Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Ana Olló eta Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Álvaro Baraibar; eta Eusko Jaurlaritzaren izenean, Bake eta Elkarbizitzako idazkari nagusi Jonan Fernandez eta Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendari Monika Hernando.

Informazio honi aztertutako gaiak jasotzen duen prentsa-oharra gehitu diogu. (I. eranskina)

– 2016ko irailaren 7an Gasteizen egindako bilera. Bertaratutakoak: Nafarroako Gobernuaren izenean, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Álvaro Baraibar; Memoria eta Bizikidetzaren Zerbitzuko zuzendari Fernando Rey, eta Memoria Historikoaren atalburu Josemi Gastón. Eusko Jaurlaritzaren izenean, Bake eta Elkarbizitzako idazkari nagusi Jonan Fernandez; Memoriaren, “Gogora” Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendari Aintzane Ezenarro, eta Enrique Ulibarriarana.

Informazio honi aztertutako gaiak jasotzen duen prentsa-oharra gehitu diogu. (II. Eranskina)

Aztertutako lanetan izan den sintonia oso altua da.

2. Funtzionario publikoek eta eskuin muturreko taldeek eragindako biktimak direla-eta (16/2015 Foru Legea) aurrera eraman diren ekimenei dago kienez:

– Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak motibazio politiko indarkeriaren biktimetzako arreta pertsonalizatuko programa bat jarri du abian, eta haren esparruan 21 hildakoren senideak artatu ditugu.

– Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak 3 bilera izan ditu hildakoen senideen talde batekin, zenbait gai orokor lantzeko, haien kezka eta beharrak ezagutzeko eta egiten ari den lanaren eta hari ekiteko moduaren berri emateko.

– Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak banakako 40 bilera izan ditu haren testigantza helarazi nahi izan diguten pertsonekin, gurekin partekatu nahi izan baitute bizi duten egoera.

– Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia hasia da agiri-funts edo “artxibo” bat sortzen, eta hari gehituko dizkiogu familiek helarazten diguten dokumentazio guztia eta guk gure aldetik lor dezakeguna.

– Gobernua (lehendakaria, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusia eta beste ordezkari batzuk bertan zirela) aitortza-ekitaldi batzuetara joan da. Besteak beste, honako hauek direla eta: Mikel Zabalza, Ángel Berrueta, Germán Rodríguez eta José Luis Cano.

3. Legegintzaldiaren amaierara bitarte dauzkan planei dagokienez.

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak terrorismoaren biktimetzako motibazio politikoko indarkeriaren biktimetzako arreta pertsonalizatuko programa bana jarri du abian. Programa horiek biltzen dituen agirian azaltzen den bezala (III. eranskinean euskarazko bertsioa dago eta IV. eranskinean gaztelaniazkoa),

motibazio politikoko indarkeriaren biktimei familiei eta biktimei beraiei arreta emateko egutegi bat egin dugu, pairatutako giza eskubideen urraketaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Programazio hau kontuan hartuta, eta gogoan edukita errealitatea alda daitekeela Konstituzio

Auzitegiak edo Espainiako Gobernuak 16/2015 Foru Legearen aurka aurkeztutako errekurtsuaren harira hartzen duten erabakiaren arabera, eta kontuan edukita Nafarroako Gobernuak lehenengo aldiz ezartzen dituen politikak direla, honako hauek dira aurreikusi diren jarduketak:

Lehentasunezko jarduketak:

- hildakoen senideei eman beharreko arreta pertsonalizatuan sakontzea.
- hildakoei buruzko agirien artxibo bat garatzea.
- harreman arina eta etengabeko komunikazioa izatea hildakoen senideekin.
- memoria eta biktimak direla-eta hasitako politikekin jarraitzea.

2017. urtea:

- arreta pertsonalizatua zabalitzea motibazio politikoko indarkeriako testuinguruetan zauriturik gertatu ziren pertsonentzat ere zabalitzea (2017ko urtarrila).
- biktimei buruzko agirien artxiboari zauritutako pertsonen kasuak gehitzea (2017ko urtarrila).
- errekonozimendua eta ordaina emateko ekitaldi bat antolatzea, Nafarroako Parlamentuaren eta toki entitateen parte hartzearekin, motibazio politikoko indarkeriaren biktimentzat, 16/2015 Foru Legeak jasotzen duen bezala (2017ko otsaila).

2018. urtea:

- arreta zabalitzea torturak pairatu zituzten pertsonentzat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 3an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

## Galdera, Lekunberrin ospaturiko “Día del Navarro ausente”-ri buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lekunberrin ospaturiko “Día del Navarro ausente”-ri buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 12ko 148. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari David Anaut Peña jaunak idatzizko galdera egin du Kanpoan diren Nafarren XXVIII. Egunari buruz (9-16/PES-00416). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Zein izan da ospakizun horren aurrekontua?

– Lekunberrin 2016ko ekainaren 4an ospatu zen Kanpoan dauden Nafarren 28. Egunaren aurrekontua 34.578 eurokoa izan zen.

Zer gastu egin ziren?

– Antolaketa gastuak eta taldeak, azpiegiturak, sustapena eta hedapena kontratatze gastuak 11.390,40 eurokoak izan ziren.

– Nafarroako etxeetatik bertaratu ziren 396 pertsonaren bazkaria hartan parte hartu zutenek ordaindu zuten osorik, eta 10.692 euroko gastua izan zuen.

– Barakaldo, Bilbo, Burgos, Logroño, Arrasate, Valentzia, Valladolid, Gasteiz eta Zaragozatik etorri zirenentzako autobus gastuek eta beste garraio-gastu batzuek 7.245,89 euro egin zuten.

– Publizitateko gastuak eta programa eta gonbidapenak editatzeko gastuak 2.945,18 eurokoak izan ziren.

Zein izan zen zehazki Nafarroako Gobernuak eginiko ekarpen ekonomikoa?

Nafarroako Gobernuak 20.000 euro eman zizkion Nafarroako Etxeen Federazioari programa hori finantzatzeko; horixe da 2016ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan ageri den berariazko kontu-sailaren –Kanpoan diren Nafarren Eguna– Nafarroako Etxeen Federazio Nazionala izeneko B10003 B1200 4819 144103 kontu-saila– zenbatekoa. Diru-laguntza hori garraio- eta antolamendugastuetara bideratu zen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-azpiegiturak direla-eta 2016rako eta 2017rako darabiltzan jarduketa-asmoei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-azpiegiturak direla-eta 2016rako eta 2017rako darabiltzan jarduketa-asmoei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 2ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00417). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Galdegileak jakin nahi du eta ba ote dagoen Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-azpiegiturak direla-eta 2016-2019 aldirako darabiltzan jarduketa-asmoei buruzko dokumenturik. Bada, erantzuna da baietz, lanerako barne-dokumentu bat badagoela ikastetxeetako inbertsioen jarraipena egiteko. Haren laburpena erantzun gisa igorri zitzaion Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari egin zuen 9-16/PEI-00693 informazio-eskaerarako erantzun moduan. Orain galdera honi gehitu diogu.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 24an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

### **9-16/PEI-00693 informazio eskaerarako erantzuna**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak informazio-eskaera bat egin du (9-16/PEI-00693). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Foru parlamentariak informazioa eskatu du Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-azpiegiturak direla-eta 2016-2019 aldirako daukan jarduketa-asmoei buruz. Bada, esan behar diogu ikuspegi ekonomikotik garrantzitsuenak direnak gehitu ditugula, betiere 2019ra bitarte

hezkuntza-azpiegituren arlorako onesten diren aurrekontuen baldintzapean egonen direnak:

- Sarrigurengo ikastetxe publikoa: azken fasea egitea (18 ikasgela lehen hezkuntzarako). Jada amaituta dauden eta funtzionamenduan dauden obrak.

- Buztintxuriko ikastetxe publikoa: ikastetxe berria eraikitzea (17 ikasgela). Exekuzio-proiektua jada idatzita dago, eta obrak lizitazio-fasean daude.

- Castejongo DBHla: ikastetxe berria eraikitzea (2,5 lerro). Exekuzio-proiektua jada idatzita dago, eta obrak lizitazio-fasean daude.

- Erronkariko ikastetxe publikoa: ikastetxe berria eraikitzea (haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta DBHko lerro bat). Exekuzio-proiektua 2017an lizitatuko da.

- Biurdanako BHla: bigarren hezkuntzako ikastetxe berria eraikitzea (DBHko 4 lerro, 18 ikasgela). Exekuzio-proiektua lizitazio-fasean dago.

- Elizondoko inguruan LHko ikastetxe berria egitea: exekuzio-proiektua 2018an lizitatuko da.

- Iturramako BHla: ikastetxea zabaltzea (6 ikasgela berri). Jada amaituta dauden eta funtzionamenduan dauden obrak.

- Larraintzarko ikastetxe publikoa: ikastetxea zabaltzea (8 ikasgela). Obrak 2016an amaituko dira.

- Lorenzo Goicoa ikastetxe publikoa: ikastetxea zabaltzea (4 ikasgela). Jada amaituta dauden eta funtzionamenduan dauden obrak.

- Uharteko BHla: ikastetxeko bigarren solairua birmoldatzea eta automobilgintzako pabiloi berria eraikitzea. Bigarren solairuaren birmoldaketa amaitu da jada, eta funtzionamenduan dago. Automobilgintzako pabiloiaren eraikuntza lizitazio-fasean dago.

- Iturengo ikastetxe publikoa: ikastetxe berria eraikitzea (6 unitate). Proiektuaren lizitazioa 2017rako aurreikusi da.

- Mutiloako San Pedro ikastetxe publikoa: ikastetxe berria eraikitzea (bi lerro). Proiektuaren lizitazioa 2017rako aurreikusi da.

- Arbizuko ikastetxe publikoa: ikastetxe berria eraikitzea (lerro oso bat). Proiektuaren lizitazioa 2017rako aurreikusi da.

- Burlatako haur hezkuntzako ikastetxea: ostalaritzarako pabiloia egokitzeko obrak. Proiektua lizitatzen ari da, eta aurreikusi da obrak 2017an egitea.

- Sunbillako ikastetxe publikoa: ikastetxe berria eraikitzea (7 unitate). Proiektuaren lizitazioa 2017rako aurreikusi da.

- Cintruenigoko BHla: ikastetxea zabaltzea. Programa zehazteko dago.

- Andrés Muñoz Garde hezkuntza bereziko ikastetxe publikoa: ikastetxea zabaltzea. Programa zehazteko dago.

- Tuterako Huertas Mayores ikastetxe publikoa: ikastetxea zabaltzea (beste lerro bat). Aurreikusi da obrak 2017an exekutatzeko.

- Sarrigurengo BHla: bigarren hezkuntzako ikastetxe berria. DBHko 6 lerro eraikitzeke lehenengo fasearen exekuzioa aurreikusi da.

- Tutera: Tuteran bigarren hezkuntzako 12 unitate jartzea aurreikusi da; tokia, ordea, zehazteko dago.

- Beriaingo ikastetxe publikoa: ikastetxe publikoa birmoldatzea.

- Navarra Villoslada BHla: araudiari egokitzea.

- Murchanteko ikastetxe publikoa: ikastetxea zabaltzea (2 ikasgela + gimnasioa). Bi ikasgela gehiago jartzeko zabalpen-lanak egiten ari dira; gimnasioa egokitzeko lanak, berriz, 2017rako aurreikusi dira.

- San Adriango ikastetxe publikoa: ikastetxea zabaltzea (4 ikasgela).

Gainera, aurreikusita dago ikastetxeak dituzten toki entitateentzako diru-laguntzen deialdi bat egitea, 800.000 euroko zuzkidurarekin.

Iruñean, 2016ko abenduaren 29an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, Renfek Tafallako tren geltokian zerbitzu ematen duten langileak kentzeko erabakiari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Renfek Tafallako tren geltokian zerbitzu ematen duten langileak kentzeko erabakiari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera egin du (PES-418) Renfek Tafallako tren-geltokiko txartelak emateko leihatila itxi izanari buruz, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean. Hona Garapen

Ekonomikorako kontseilariak, zeinak behean sinatzen baitu, ematen dion erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez zuen Renferen erabakiaren berri, alegia, ez zekien Tafallako trenbide-geltokiko zerbitzuak artatzen zituzten langileak kendu behar zituenik 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera; izan ere, ez dugu jasota gaur den eguneko langile horiek kendu dituztenik.

Sustapeneko ministroarekin urtarrilaren 31n izan genuen bileran, Nafarroako Gobernuak helarazi zion Tafallako tren-geltokiaren etorkizuna dela-eta Nafarroako Erdialdean dagoen kezka, eta Ministerioak horri buruz duen jarreraz galdetu genuen. Horri dagokionez, Sustapeneko ministro De la Serna jaunak jakinarazi zuen Ministerioak hari eusteko asmoa zuela.

Azkenik, gure ustez Nafarroan trenbide-korridore berria eraikitzeak ez duela Tafallako geltoki hori desagertzeko zorian utziko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

## **Galdera, Gazte Bermeko Plan Nazionala ezartzeko neurriei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ainhoa Unzu Gárate andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gazte Bermeko Plan Nazionala ezartzeko neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Unzu Gárate andreak galdera bat egin du (9-16/PES-00419) Gazte Bermeko Sistema Nazionala sustatzeko presako neurriei buruzko abenduaren 23ko 6/2016 Errege Lege-dekretuaren bidez onetsitako neurriei buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Errege lege-dekretu honen bidez lege-aldaketa bat onesten da, autonomia-erkidegoek askotan eskatu dutena. Honako honetan datza, hain zuzen:

- Gazte bermeko sistemarako sarbidea izateko baldintzak malgutzen dira. Hartara, azken hilabeteetan lan egin ez izanari eta azken 90 egunetan hezkuntza-ekintzak amaitu ez izanari buruzko baldintza aldatzen da. Horren ordez eskatzen da eskaera aurkeztu aurreko egun naturalean lan egin ez izana eta eskaeraren aurreko egunean prestakuntza- edo hezkuntza-ekintzarik jaso ez izana.

- 2013ko irailaren 1a eta gero kolektiboari zuzendutako berariazko ekintzaren batean parte hartutako pertsonak ofizios inskribatzeko aukera ematen da, baldin eta ekintza hori egin zen egu-

nean eskatzen diren baldintzak betetzen bazituzten.

- Enplegu-eskatzaile moduan izena emateak berarekin dakar ofizios inskribatzea gazte bermeko sisteman, baldin eta baldintza guztiak betetzen badira.

- Fitxategian baja ematen da, inskripzioa egindako pertsonak aurrez eskaera eginda.

Errege dekretu hau onesteak ez du inongo aldaketarik ekarri Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak gazte-bermea dela-eta aurreikusitako neurriei dagokienez.

Hazkunderako, lehiakortasunerako eta efizientziarako presako neurriei buruzko uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege-dekretua onestearekin –Hazkunderako, lehiakortasunerako eta efizientziarako presako neurriei buruzko urriaren 15eko 18/2014 Legeaz berretsia– Gazte Bermearen Sistema Nazionala ezartzen da, eta Nafarroak data horretatik aurrera bete egin du araudi horretan ezarritakoa. Izapidetutako aldaketak ez ditu ukitzen gartzten ari ziren jarduketak; aitzitik, aukera ematen du onuradun gehiagok parte har dezaten SNE-NLk bultzatutako neurrietan, sarbiderako baldintzak malgutu ondoren.

Gaur egun, Nafarroan guztira 5.793 gazte daude inskribaturik gazte bermeko sisteman; horietatik, 3.334 gizonezkoak dira (% 57,55) eta 2.459, berriz, emakumezkoak (% 42,45).

SNE-NLk gazteei zuzendutako honako jarduketak hauek egiten ditu:

- Gazte bermeko sisteman izena emandako pertsonentzako informazio eta lan-orientazioko zerbitzuak. 2015ean eta 2016an kolektibo horrekin 46.003 ekintza egin dira.

- Prestakuntza-ekintzak. 2014tik 2016ra, 40 prestakuntza-ekintza egin dira, soilik inskribatutako pertsoneri zuzenduak.

- Lantegi eskolak. Lantegi-eskolen eredu berria soilik 30 urtetik beherako pertsoneri zuzenduta dago. 2015etik 2016ra enpleguko 4 lantergi-eskola finantzatu ziren, kolektibo horri zuzenduak.

- Kontrataziorako pizgarriak. Pizgarriak ematen dira enpresek eta toki entitateek gazteak kontrata ditzaten. 2015etik 2016ra 30 urtetik beherako 500 kontratu baino gehiago finantzatu dira.

- Enplegu-agentziaren bitartezko gizarteratzea. 2016an, sisteman inskribatutako 200 gazte deribatu dira enplegu-agentzien bitartezko gizarteratzerako.

- Autoenplegurako laguntzak. Langile autonomo gisa jartzen diren gazteentzako laguntzak ematen dira.

- Ekonomia sozialerako laguntzak. Ekonomia sozialeko enpresetan sartzten diren gazteentzako laguntzak ematen dira.

Gazte bermearen sistemari buruzko erregulazioa Estatuaren eskumena da, eta azken horrek, bere eskumenez baliatuta, erabaki du gizarter-

solaskideek sisteman esku har dezatela Gazte Bermearen Sistema Nazionalaren Jarraipenerako eta Ebaluaziorako Eskuordeko Batzordean parte hartuz.

SNE-NLk jada parte-hartzerako eta lanerako bere organoak dauzka enplegu-politika aktiboen arlorako. SNE-NLren Estatutuak arautzen dituen abenduaren 2ko 263/2015 Foru Dekretua onestearekin, Gobernu Kontseilua, Enplegu-politiken Jarraipena egiteko Batzordea, Lanbide Gaitasunak Garatzeko Batzordea, eta Orientaziorako, Enplegua Sustatzeko eta Enpresentzako Zerbitzuetarako Batzordea eratu ziren. Organo horietan Administrazioiko eta sindikatu- eta enpresa-erakundeetako ordezkariak daude, eta haietan enplegu-politika aktiboen arloko neurri guztiak aztertu eta eztabaidatzen dira, horren barne direla gazte bermeari buruzkoak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 31n

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

